


GIPUZKOAKO KANPANDORREAK (II)

Juan Mari Arrizabalagak

Kanpandorrean bizi den
uso zaharra
ez da dorrearen harriak baino
gehiago higitu
su-kanpaiak jo dituztenean:


Ez da higitu,
ez kanpaiaz ez suaz.

JosAnton Artze




1.- AZKOITIA.- Andre Mariaren zeruratzea

Eraikuntzako kontratua: 1522koa. Bukaera, belaunaldi, bargin, ezbehar eta etenaldi ugariaren ondoren, 1586an. Estiltoa: euskal gotikoa eta barrokoa. Dorreak geroagokoak dira. Lenengoa XVIII. mendekoa, 1703koa hain zuzen. 1735ean tximista baten eraginez suntsitu ondoren, XVIII. mendean berria jaso zen. Berriro ere tximista batek lurreratu zuen XX. mendean, eta Raimundo Alberdi Arkitektoak eraiki zuen gaur egun dakusguna.




2.- ANDOAIN.- San Martin Toursekoa

Eliza hau egiteko, 1756. urtean, Peruko indiano batek dirutza handia eman omen zuen. Frantzisko Ibero izan zen arkitektoa. 1770. urtean inauguratu zen. Kanpandorra, hiru gorputzez osatua. Arkuaren gaineko balkoiaren koroa gisa, XVIII. mendeko herriko armarrri barrokoa, handia. Bigarren gorputzean, alde banatan, erloju bana, eta birugarrenak zirkuluerdiko lau leiho ditu, kanpaiekin.




3.- ELGOIBAR.- San Bartolome

XVII. mendeko eliza barrokoa, mende eta erdi eta zazpi arkitektoen ondoren 1777an bukatu zena. Arkupeak eta dorreak, horiexek osatzen dute fatxada nagusia. Ibero aita-semeak diseinatutako dorrea. Ezkilategia barroin batez eta lauki formako sotabasa batez osatuta dago, eta horien izkinetan pinakuluak ikusten dira eta laranjaerdiko kupula batek errematatzen du.




4.- ORDIZIA.- Santa María

1511-1600 bitartean eraikitako eliza. XVIII. mendeko kanpandorra. 1578an eraiki zena ordeztu zuen. Kontrako fatxadan bada beste dorre bat. Enigma bat sortzen digu dorre honek: edota harresiaren dorre bat zen, edo kanpandorre bat zen eta mantenimendu eta artapen arazoak zirela medio baztertua izan zen.




5.- BERGARA.- Ariznoako San Pedro .-

Eraikuntza basiera: 1521ean eta inaugurapena 1646an. Berrikuntza premisa gotikoekin hasia; gero tritsiko dira Errenazimenduko influentziak. Dorre barrokoa, 1728an Jose de Lizardik eraikia. Kanpandorre hau alboko hormetatik ateratzen da. Lehenbiziko gorputzean, hondotik gertuen dagoenean, zirkuluerdiko arkuek eratzen dute arkupea eta arkuen gainean San Pedoren armarrria ageri da, eta goraxeago leibo bat txaranbeldu samartua; bigarrenean kanpaiak daude, erloju eta guzti zirkuluerdiko arkuen babesean; birugarren gorputza oktagonala da, eta kupula batek eta kupulatxo batek errematatzen dute.




6.- OÑATI.- San Miguel

Jatorrizko eliza, XIII. mendekoa. XV. mendean bi nabe gebitu zitzaizkion, XVI.ean berriz, klaustroa eta erretaula. Eta XVIII.ean fatxada eta erretaula nagusia. Mende horren bukaeran dorrea itsatsi zitzaion. Dorre hau neoklasikoa da, karebarri grisez egina. Aipamen berezia merezi dute dorrearen lau ertzetan kokaturik dauden lau eskultura handik, Mendebaleko elizako gurasoak, alegia.




7.- ATAUN.- San Martin Toursekoa

XV. mendean basi zen elizaren eraikuntza. Alderdi bat (barlanduzkoa) XVI. mendekoa da; bestea berriz (barlangaitzekoa) XVII.goa. Kanpandorra, Bernardo de Abariaren trazekin XVII. mendean eraiki zen. Dorre honek alde bakoitzean zirkuluerdiko bao bana du kanpamentzat, eta erremate gisa kapitela eta burdinazko gurutze bat.




8.- ITSASONDO.- Andre Mariaren zeruratzea
1350. urtean bazen eliza bat Itsasondon. XVI. mendean eraberritu eta handitu egin
zuten; hala ere, Eraikuntza Liburuetatik dakizkigun lehen berriak XVII. mendearen
basierakoak dira. Esteban de Abariak kanpandorrea diseinatu zuen 1697an eta berak
egin zuen XVIII. mendearen basieran.




9.- LEGORRETA.- Salvatore eliza

XVI. mendeko Salvatore elizak, ezaugarri gotikoak eta barrokoak uztartzen ditu, eta biru zatitan banatutako urre koloreko erretaula dauka barruan. Dorrea XVIII. mendean jasotakoa izango litzateke, Jose de Lizardi eta Domingo Bernardo de Abariaren lanaren arabera.




10.-HERNANI.- San Joan Bataiatzailearen eliza

Fatxada nagusia udaletxeari atxikia dago eta biek Gudarien plazaren ertz bat osatzen dute. XVI. mendean eraikia, euskal gotikoan. Eliza eraikitzeko lanak dezente luzatu ziren, arkitekto eta etenaldi ugari izan baitzituzten. Kanpandorrea Francisco Iberok egina da. Karratua, hiru gorputzekoa, eta oso handia. Erlaitza harrizkoa du, molduraz apaindua eta zizelkatua, eta gainean, baranda bat dauka, eta haren gainean, berriz, kupula.




11.- IRUN.- Junkal Eliza

1508. urtean basi ziren eraikitzen eta 1606an amaitu zuten; eraikuntza-lanek luze jo zutenez era askotako arte-estiloak daude ikusgai tenplu bonetan. Dorrea jasotzeko barria Amasatik ekarri zuten, Hernaniraino gurdietan, gero gabarretan Donostiako Santa Catalina zubiraino eta azkenik portutik Irunera itsasontziz.




12.- LAZKAO.- San Miguel

Eliza XVI-XVII. mendekoa. Oinean dago kanpandorrea, eskuinaldera, kupula zorrotz, linterna estilizatu eta burdin forjatuzko gurutze batekin errematatuta. Garai bateko dorre txikiaren ordez beste bat behar zela-eta, Infantadoko Dukeak jarri zuen diruaz berria egin zen.




13.- TOLOSA.- Santa María

1503ko sutearen ondoren 100 urtetik gorako lanak behar izan zituzten gaurko eraikina jasotzeko. Areto oinplanoa eta garaiera handiko biru habearte ditu. Euskal eliza gotiko oinplanoen lehen eredu. Goi mailako aurrealde barrokoa Martin Lanera arkitektoak egin zuen, 1761ean hasita, bi dorretxo eta karelairekin.




14.- ASTEASU.- San Pedro

Ia eraikin dena XVI. mendekoa den arren, aztarna zabarragoak (sarrera erromanikoa, bataioko iturri gotikoa, e.a.) oraindik ikusi daitezke, besteak beste aurrealdea. Dorrea ordea XVII. mende hasieran bukatu zen. Ignacio de Iberok XVIII. mendean zuzendu zituen zabar berritze eta aldatze lanak.




15.- AZPEITIA.- Soreasuko San Sebastián
Jatorriz tenplarioen gunea. Handitzeko lanak XVI. mendean. Estiloa: euskal gotikoa.
Kanpandorrea, txapitel dotore batez errematatua, da elizako elementurik zabarrena,
bere jatorria Erdi Aroan murgiltzen delarik. Agian defentsarako erabili zen.




16.- AMEZKETA.- San Bartolome

Oso eraikuntza gorabeheratsua izan zen, 1547 inguruan hasi eta 1766 arte ez baitzen bukatu. Zurezko egitura batek babesten duen sarrera nagusiak dorrea zeharkatzen du. Kanpandorrea oinplano angeluzuzenekoa da eta biru atal ditu; goikoak zirkuluerdiko arkua du alde bakoitzean, kanpaiantzat. Kanpai horma bat du gainean, aurreko aldean zirkuluerdiko bi bao dituen.



17.- ZUMAIA.- San Pedro

Eliza XIII, XIV. mendekoa. Gotorleku itxura duen eraikuntza. XV. mendean eraikitako 34 metroko dorre ia karratua, arrosa koloreko karebarri dotorekoa.




18.- ARRASATE.- San Juan Bataiatzailea

Eraikuntza XIII. mendean hasi zen. XIV.ean jada gaur egungoaren itxura zuen.


Gotiko estiloko dorrea eraiki zen

Geroago, XVI. mendean, sakristia eta kanpai horma erantsi zitzaizkion eraikimaren begoaldean; bain zuzen hortxe daude Gipuzkoako kanpairik handienak. Elizaren oinean altxatzen den kanpandorreak babesa ematen dio portada nagusiarri.



19.- BERASTEGI.- San Martin Toursekoa

Eraikin gotikoa, XVI. eta XVIII. mendeetan zabarberritu eta zabaldua. 1505ean Domingo de Iruza eta Lope de Etzaizek jaso zuten dorrea eta 1532an Lope de Iruarizaga harlantzaz arduratu zen 1557 inguruan amaitu arte. Dorrearen gorputza barruan zentratuta dago, kanpoaldera irten gabe, eta alde bakoitzean leibo zirkuluerdi formako bat du, beste bat lauki formakoa eta beste bat zirkuluerdi formakoa, bata bestearen gainean jarrita. Arkuak, baoak, leihoak eta abar izan ezik, barrualdean ia gainerako guztia emokatuta dago.



20.- LOIOLA, basílica.- Loiolako Inazio Deuna
 Basílica barrokoa. Carlos Fontanak diseinatu eta gero
 Bere eraikuntzan, besteak beste, Ignacio de Ibero eta Joaquin de Churriguerak parte
 hartu zuten. Hasi: 1690ean. Inauguratu: 1738an. Burutu: 1885-1888an. Egundoko
 eraikin bonen fatxada bikaina eta 65 metroko kupula zoragarria ikusita, barrokoaren
 eraikinik garrantzitsuenetariko bat dela esan daiteke.